

# Eskolako balioak aztergai



**Ikasle Kaiera**



**Iker Iraola Arretxe**  
**Maialen Garmendia**  
**Larrañaga**

## 1. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA

### 1.1. Datu orokorrak

Proiektu hau Lehen Hezkuntzako graduako 1.go mailako Hezkuntzaren Soziologia irakasgaiaren burutzen da. Lehenengo lauhilekoan garatzen den irakasgai honek 6 kredituko zama du, ondorengo moduan zehazturik:

	Bertaratzeko orduak	Ez bertaratzeko orduak	Guztira
Magistrala	12	18	30
Gelako praktikak	48	72	120
Guztira	60	90	150

### 1.2. Ikaskuntza emaitzak

Irakasgaiaren helburuak kontuan izanda, ikasleak lortu behar dituen ikaskuntza emaitzak ondorengoak dira:

**IE1:** Hezkuntzaren eta bere testuinguru sozialaren arteko harreman ulertzea: egitura eta instituzio sozialak, gatazka sozialak, etab. Halaber, eskolako nahiz familiako hezkuntzarekin lotuta dauden gizarteko gai nagusien inguruan modu kritikoak hausnartzea, horretarako ezagutza soziologikoaren oinarriak erabiliz.

**IE2:** Hezkuntzaren funtzio sozialak ulertzea: bereziki gaur egungo gizartean eskolak betetzen dituen funtzioak, eta dituen aukerak nahiz mugak.

**IE3:** Hezkuntza praktikan eragiten dituen ekintza eta tresna sozialak baloratzea, eta hobekuntzarako proposamenak egitea.

**IE4:** Komunikazio eta informazio teknologiek hezkuntza munduan duten inplikazioa ezagutzea eta horretaz kritikoki hausnartzeko gai izatea.

**IE5:** Hezkuntzari lotutako edozein arazo hobetu ahal izateko informazio esanguratsua izatearen garrantziaz jabe izatea eta berau modu kritikoan aztertzeke gai izatea. Hezkuntzako gaiei buruzko informazioa bilatu, irizpidearekin aukeratu, aztertu eta sintetizatzeke gai izatea: dokumentuak, iturri estatistikoak, etab.

**IE6:** Errealitatea behatzeko eta erregistratzeko teknikak modu egokian erabiltzea; lortutako datuak interpretatzea eta aztertzea; erdietsitako emaitzez kritikoki hausnartzea; ondorio esanguratsuetara iristea eta analisi-txosten egokia sortzea.

**IE7:** Jendaurrean informazioa, ideiak, argudioak, arazoak eta konponbideak modu egokian transmititzea.

**IE8:** Ikaskuntza autonomo eta kooperatiboari lotutako ohiturak eta gaitasunak eskuratzea. Taldean erantzukizunez eta besteeikiko errespetuan lan egitea, sor daitezkeen gatazkak gaindituz.

**IE9:** Balioetan oinarritutako hezkuntzari lotutako ekintzak bultzatzeko gai izatea.

## **2. PROIEKTUAREN ZEHAZTAPENA**

### **2.1. Hasierako galderak**

Ikasleen aurre-matrikulazio kanpainaren baitan, ikastetxe batzuek azpimarratzen dute beraiek “balioetan hezten dutela”. Baieztapen horretatik ondorengo ondoriozta dezakegu:

*Balioetan hezten ez duten ikastetxeak badaude?  
Ikastetxe neutral bat –hau da, balioetatik at egongo dena– posible al da?*

Irakasgai honetan funtsezkoa den gai bat eskolaren dimentsio soziala da. Hezkuntza, horrela, ez da ezagutzak transmititzeko prozesu hutsa, transmisio hori ez baita neutrala. Jakintzekin batera, balioak eta arau sozialak ere transmititzen dira.

*Zein balio transmititzen da sozializazio prozesuan?  
Zein balio transmititzen da familian, eskolan eta komunikabideetan?  
Koherentziarik badago sozializazio agente desberdinek transmititzen dituzten balioen artean?*

Ikastetxeetan, balioak curriculum ezkutuan ere islatzen dira, hau da, ikasketa metodoetan, ikasgela barruan garatzen diren harremanetan, eta eskolako dinamiketan nahiz praktiketan.

## 2.2. Egoera

*“Irakasle moduan lanean hasi berria zara ikastetxe publiko batean, hiri-inguru batean eta maila sozioekonomiko ertain-baxuko jendea bizi dena; halaber, gutxiengo etnikoek presentzia ugari dute. Azken urteetan, gertuko ikastetxe pribatu eta kontzertatuen lehia gero eta nabarmenagoa da. Ikastetxe horiek antolatzen dituzten matrikulazio kanpainetan, jendea erakartzeko asmoz, beren ikastetxeen “balioetan oinarritutako hezkuntza” eskaintzen dutela argudiatzen dute. Horrela, badirudi beste eskola batzuek “ez dutela balioetan hezten”.*

*Zu zauden ikastetxean Zuzendaritza berri behar da; eta irakasle talde bat hezkuntza-proiektu proposamen bat prestatzen ari da, zuzendaritza talde berriaren programaren oinarria izango dena. Zuek talde hori zarete. Goian aipatutako lehiakortasun gero eta handiagoko testuinguru horretan, balioetan oinarritutako hezkuntzak proiektu berriaren zutabe garrantzitsu bat izan behar duela erabakitzen duzue. Proiektuak ikastetxeko klaustroaren aldeko botoa eskuratu behar du.*

*Hori dela eta, ikastetxean balioetan oinarritutako hezkuntza garatzeko estrategia ardatz duen proposamen bat egingo duzue. Proposamen hori egiteko, egoeraren analisi batetik abiatu beharko duzue, hau da, gaur egungo gizartearen analisi bat: haren balio menperatzaileak, horrek sortzen dituen arazoak eta kontraesanak, haurrengan balioak zabaltzen dituzten beste agenteen papera, etab.*

*Amaitzeko, zuen proposamenean balioetan oinarritutako hezkuntzaren gaia ikasleekin lantzeko aproposak izan daitezkeen ikus-entzunezkoak ere gomendatu nahi dituzue.”*

## 2.3. Gida-galderak

Proiektuaren bidez erantzun nahi ditugun galdera batzuk:

- a. Balioetan oinarritutako hezkuntza
  - i. Zer dira balio sozialak? Eta balioetan oinarritutako hezkuntza? Zeintzuk dira gure balio sozial nagusiak?
  - ii. Zein bilakaera izan dute balioek hezkuntzan? Zein balio transmititzen ziren familietan frankismoaren eta ondorengo garaietan? Eta gaur egun komunikabideetan?
  - iii. Nola lan egin da gai honen inguruan beste herrialde batzuetan? Gure inguruan aplikatu aldera, esperientzia horietatik ikas dezakegu?
  - iv. Zein balio transmititzen dira komunikabideen bidez? (telebistako haurrentzako programak, filmak, ipuinak, bideo jokoak, etab.)

- b. Balioetan oinarritutako hezkuntza eskolan
- i. Zein balio landu behar ditugu eskolan? Zeintzuk lehenetsi behar dira? Zein punturaino bultzatu daitezke eskolatik balio alternatibo batzuk?
  - ii. Balio “ofizialen” (legeak gaiaz esaten duena, ikastetxeen “idearioak”, etab.) eta eskolak benetan transmititzen dituenen arteko desberdintasunik badago?
  - iii. Zeintzuk dira eskola publikoetan transmititzen diren balioak? Kristau eskoletan lantzen direnen berdinak al dira? Eta ikastoletan nahiz kooperatibetan lantzen direnekiko?
  - iv. Familiari dagokionez, zein izan behar du eskolaren papera? Zein balio transmititzen dira gaur egun familian? Eskolako balioak indartzen dira ala horiekin talka egiten dute?
  - v. Generoari dagokionez, zein da eskolaren ekarpena? “
  - vi. Aniztasun kulturalari dagokionez, zein balio bultzatu behar dira ikasleen artean?


## 2.4. Metodologia

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (PBL) metodologia erabiliko da. Irakaskuntza-ikaskuntza metodo honen helburua ikaslea bere ikasketa prozesuaren protagonista izatea da. Beraz, ikasleek, taldeka bildurik, egoera errealei buruzko proiektuak garatu behar dituzte. Horrela, PBLan arazo edo gai bat aurkezten da, berau aztertu edo lantzeko ikasi beharrekoaren diagnostikoa egitean da, beharrezkoa den informazioa bilatzen da, eta azkenik arazoari nolabaiteko konponbidea –edo hobekuntza proposamena– egiten zaio.

Proiektuari lotutako eskola orduetan, irakaskuntza teknika desberdinak erabiliko dira (bikotekako apunteak, ideia-zaparrada, buruhaustea, puzzlea, etab.).

Proiektua 4 pertsonatako taldeek burutuko dute. Proiektua garatzeko eskola orduetatik kanpo biltzea ezinbestekoa izango denez, taldeak osatzerako garaian ordutegia edota bizitokia kontuan hartzea gomendatzen da. Taldeak generoari dagokionez heterogeneoak izaten saiatuko gara.

## 2.5. Proiektuaren faseak



- Proiektua abiatzeko, aztergaia modu egokian mugatzea ezinbestekoa izango da. Horretarako, ohar batzuk emango dira eskoletan.
- Behin gaia mugatuta, proiektua lanketa teoriko batetik abiatuko da; horretarako, eskolan errebisio bibliografikoa egoki burutzeko oharrak emango dira (iturri motak, informazioa bilatzeko bitartekoak, etab.). Atal honetan, lanean zehar landuko diren kontzeptuak argitu beharko ditu taldeak, eta, aldi berean, bere aztergaiaren eta horrek balioekin duen loturaren arteko harremana argitu beharko da:
  - Zein baliorekin du lotura gure gaiak?
  - Zein balio aldatu nahi ditugu? Eta zein bultzatu?
- Gaiari buruzko informazioa lortu ostean, taldeak ikerketa txiki bat egingo du; hau da, errealitate sozialetik aztergai duen gaiaz informazioa eskuratuko du. Horretarako, eskoletan ikerketa-lanari buruzko oharrak emango dira: ikerketa kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arteko bereizketa, ikerketa teknika nagusiak, etab. Aldi berean, sakoneko elkarrizketak egiteko oinarrizko oharrak landuko dira.
- Aztergaiari buruzko informazio lortu ondoren, eta ikerketa txiki bat burutu ostean, taldean proiektuaren egoeratik abiatuta, bere eskolarako proposamen bat egingo du.

## 2.6. Proiektuaren behin-behineko plangintza

Proiektuari lotutako astekako plangintza bat duzue jarraian (aldaketak egon daitezke):

1		
2		
3	<b>Bideo pizgarria: Japoniako Eskola (<i>bikote bidezko apunteak</i>)</b>	<b>Gaien aukeraketa (<i>brainstorming</i>) Taldeen osaketa</b>
4		<b>Sozializazioa: kontzeptua, prozesua eta agenteak</b>
5		<b>Informazio bilaketa</b>
6	<b>Oinarrizko jakintzen azterketa indibiduala</b>	<b>Sozializazioa Ikerketa</b>
7	<b>Eskolako sozializazioa Ikerketa</b>	<b>Eskolako sozializazio Ikerketa</b>
8		<b>Mapa kontzeptuala</b>
9		
10	<b>Aurkezpenak ikasgelan</b>	<b>Aurkezpenak ikasgelan</b>
11	<b>Azken txostenaren entrega</b>	
12		

13		
14	<i>DILANaren aurkezpena</i>	<i>DILANaren aurkezpena</i>
15		

## 2.6. Ebaluazioa

PBLak, hau da, Proiektuak irakasgaiaren lan-kargaren %30 inguru suposatzen du. Denboraren ikuspegitik, Proiektuari 5 aste eskainiko zaizkio; hortaz, ikasle bakoitzak 40 ordu inguru eskainiko dizkio proiektuari, 20 bat ordu eskoletan, eta beste 20 bat ordu ez bertaratzekoak (kopuru hori erabili beharreko gehienekoaren kalkulua da). Taldeak lau pertsonaz osaturik egongo direnez, proiektuak guztira 160 orduko lan-karga izango. Azkenik, 6. aste bat eskainiko zaio ikasgelan proiektuari, lan desberdinen aurkezpenak egin ahal izateko.

Proiektuari eskainitako denborak bere isla du ebaluazioan. Gutxieneko ezagutzen azterketa kanpo utzita (proiektuarekin lotua, eta gaitegiko 1.go nahiz 2. gaietako kontzeptu nagusiekin), proiektuak azken kalifikazioaren %30ko balioa dute.

*Entregatzeko* lan desberdinen balioa ondokoa izango da:

- 1.go entregatzekoa: mapa kontzeptuala, %10
- 2. entregatzekoa: ikerketaren aurkezpena (ppt. formatuan), %10
- 3. entregatzekoa: amaierako txosten idatzia, %10

Irakasgaiaren ebaluazioari, Diziplinarteko Lana (DILAN) -%20-, gainontzeko edukiei buruzko azterketa idatzia -%50- gehitu behar zaizkio.<sup>1</sup>

Ebaluazio modu honi lotzen zaion ikasleak –ebaluazio sistema mistoa da, amaierako ebaluazioa eta jarraia kontuan hartzen diren neurrian– ikasketa kooperatiboen

<sup>1</sup> Gogoratu, halaber, irakasgaia gairiditu ahal izateko ebaluazioa osatzen duten atal bakoitza gairiditzea beharrezkoa izango dela.



balio eta ikuspegiari lotzen zaio, etorkizuneko irakasle izango den heinean. Ikasketa sistema honen oinarritzko arauak hauek dira:

- **Interdependentzia positiboa**, taldean lanak eta egitekoak banatzearen ondorioz. Lan egiteko modu honen bidez, banaka lan eginda baino informazio eta eduki gehiagotara hel gaitzke.
- **Norbanakoaren erantzukizuna**, taldeko kide guztiek lanaren zati guztien ardura dute. Horrela, entregatzekoak edota aurkezpenak eskatzerakoan, irakasleak zoriz taldeko edozein kide aukeratu ahal izango du.

## 2.7. Zehaztapenak

Proiektuan zehar egin beharreko lan desberdinei buruzko ohar batzuk:

- **Mapa kontzeptuarekin**, taldeak bere lanean nagusi izango diren kontzeptu nagusiak modu argian agertzeko saiakera egin behar du. Halaber, kontzeptuen arteko loturak azpimarratu beharko dira. Mapa honetan, gai zehatza balioen gai orokorrarekin lotuko du taldeak.
- **Aurkezpenarekin**, taldean proiektuaren 3. fasea azpimarratuko du: irakasle talde gisa, planteatzen den egoeratik abiatuz egiten duen azterketa eta proposamena.
- **Txosten idatzia**, hiru faseak azalduko dira, modu argian: kontzeptuen argipena eta balioekiko lotura; egindako ikerketa laburra; eta egoeratik abiatutako proposamena eta hausnarketa. Txostenak 10-15 orrialde arteko zabalera izango du.

## 2.8. Baliabideak

Irakasgaiko txostenaz gain, proiektua garatu ahal izateko ondorengo baliabideak izango ditu ikasleak:

- Eskuliburuak eta liburu akademikoak
- Artikulu zientifikoak
- Ikus entzunezko materiala (dokumentalak, filmak, haurren programazioa, irratsaioak eta podcast-ak...)
- Administrazioen webguneak

- 
- Ikastetxeen webguneak
  - Elkarrizketatu daitezkeen lagunak/senitartekoak...
  - Adituei elkarrizketak: ikastetxeetako irakasleak
  - Beste garaietako edota herrialdeetako dokumentuak (ipuinak, testu liburuak...)
  - Eta abar